



Clinton edozer gauza egiteko gertu jendearen begikotasuna eskuratzeko.

Jacksonek lehendakariordetza eskatu dio Clinton demokratari

NEW YORK

Jesse Jackson buruzagi beltzak azaroan egingo diren hauteskundeetan lehendakariordetza-rako hautagai demokrata izendatzeko exigitzeaz gain bere helburua betetzen ez bada gogor erantzuteko prest dagoela ere adierazi dio 'Daily News' egunkariari. Jacksonek adierazita-koaren arabera, Bill Clinton Lehendakariordetza-rako hautagai demokratik bera lehendakariordetza onartu ahal izateko nahiko konfiantza badu. «Elkar errespetatzen dugu» esan zuen Jacksonek.

Hilaren lehen egunetan Clintonen areriorik gogorrena den Jerry Brown Californiako gobernadore

ohiarekin hartu zuen parte Jacksonek zenbait mitinetan. Hautesle gobernatzaile bera bere ematea espero du Jacksonek. Azken bi hauteskundeetan EEBBetako lehendakariordetza izan zen Jesse Jackson gutxiengo etniko eta hauteslego beltza bere-

ganatu ondoren. Aurten ez aurkeztea erabaki badu ere dagoeneko lehendakariorderatzarako aukeratu izaten ez bada erantzun gogorra emateko gertu dagoela iragarri du. Jacksonek egindako eskakizuna betetzen ez bada Lehendakariordetza-rako demokraten aldeko babesa kendu diezaieke nahiz eta oraindik ezer zehaztu ez duen.

Bestalde, eta demokrata eta errepublikarren arteko hautagaiak zein izango diren kasik erabakita dagoenean, atzo egin ziren Pensilvaniako estatuan hauteskunde primarioak.

Datorren abuztuan egingo den konbentzio errepublikarrean George Bush EEBBetako lehendakaria izango da berriz ere Etxe Zurira-

ko hautagaia. Horrenbestez, errepublikarrek lehendakariordetza izateko behar diren 1.105 ordezkarietatik 1.028 lortu ditu Bush eta apirilko azken asteartean Pensilvaniako hauteskundeetan jokoan zeuden 91etatik ia denak bereganatuko zituela espero zen.

Demokraten aldetik Clinton Arkansaseko gobernadorea da alderdiko hautagai faboritua. Alderdi horretan Lehendakariordetza-rako hautagaia izatea lortzeko 2.145 ordezkari lortu behar dira.

Israelek boikota egin diezaieke aldeanitzeko bake elkarrizketei

Shamirrek errefuxiatu palestinarren partehartzea ekidin nahi du

Estatu Batuek, Errusiak eta Europako Komunitateak errefuxiatu palestinarrek gonbidatzeko asmoarekin segitzen badute, Israelek boikota egingo die datorren maiatzean hasiko diren aldeanitzeko bake elkarrizketei, atzo Israeleko irati estatalean irakurri zuten Gobernuaren komunikatuaren arabera.

DONOSTIA

Aldeanitzeko elkarrizketetarako osatuko diren bost batzordeetatik bitan soilik hartuko dute parte diasporako palestinarrek, orain arte aurkikutsa zegoen moduan behintzat. Hala ere, Israeleko Gobernuak batzorde guztietatik aldegiteko prest dago baldin eta errefuxiatu palestinarrek parte hartzen badute, irati israeldarrek adierazi bezala. Erabaki horrekin aurrera egingo balu, aldeanitzeko elkarrizketak hasi aurretik krisian egongo lirakeke, Yitzhak Shamir Israeleko lehen ministroaren arabera «Israel arazoaren % 50 delako».

Diasporako palestinarren partehartzeaz mintzatu behar zuten atzo James Baker Estatu Batuetako Estatu idazkariak eta David Levy Atzerri ministro israeldarrek. EEBBetako Gobernuak errefuxiatu palestinarren partehartzearen aldeko postura egin du, eta iritiz aldatzeko eskaera egitera joan zen Levy Washingtonera.

BOST BATZORDE BEREZI Moskun iragan urtarilean egin ziren elkarrizketen ondoren, bost batzorde osatuko zirela iragarri zuten antolatzaileek: segurtasun arazoena, elkarlan ekonomikoena, uraren arazoena, errefuxiatuena eta Ekialde Erdiko arazo ekologikoena.

EEBB, Errusia eta Europako Komunitatea diasporako palestinarrek 1948. urteaz geroztiko arabiar eta israeldarren arteko gerrako errefuxiatuen batzordean eta elkarlanekoan parte hartzearen aldeko dira. Levy eta Bakerrek beste bi puntu ere bazituzten eztabaidatzeko: Ekialde Erdiko desarme elkarrizketan EKren partehartzea eta errefuxiatuen arazoan Nazio Batuen partehartzea. Israelek orain arte ezezkoa eman die bi erakunde horiei gai hauek.

«Diasporako palestinarren partehartzea ez da eztabaidan jarri ere egiten» adierazi berri du Shamirrek «horiek onartzea Palestinaren Askapenerako Erakunde terrorista onartzea litzatekeelako». Madrilgo Bake Konferentziaz geroztik Israelek,



Lurralde okupatueta palestinarrek protestekin segitzen dute.

Gazzah eta Zisjordaniako lurralde okupatueta palestinarrek hitzeginen du soilik.

Gauzak okertzen ez badira, Bruselen maiatzaren 11tik 13ra bitartera elkarlan eta garapen ekonomikoari buruz hitzeginen dute. Washingtonen 15etik aurrera segurtasun eta desarmeari mintzatu dira eta Vienan 13tik 15era bitarte uraren arazoaz. Japonia (ekologia) eta Ottawako (errefuxiatuak) elkarrizketen egunak oraindik jarri gabe daude.

✓ Shamir: «Diasporako palestinarren partehartzea ez da eztabaidan jarri ere egiten, horiek onartzea Palestinaren Askapenerako Erakunde terrorista onartzea litzatekeelako».

Ashrawik hauteskunde orokorrak exigitu ditu palestinarrentzat

WASHINGTON

Arabiar eta israeldarren arteko elkarrizketen bostgarren saioa Israel eta Siriaren proposamenekin ireki zen herenegun. Israelek lurralde okupatueta udal hauteskundeak egingo direla adierazten zuen bitartean, Siriak herri horretako judutarrei bertatik irteteko baimena emango zirela iragarri zuen. Hanan Ashrawi ordezkari palestinarrek berehala baztertu zuen Gazzah eta Zisjordaniako herrietan hauteskundeak egiteko aukera eta Legebiltzar autonomoa osatzeko hauteskunde orokorrak egitea exigitu zuen. Ashrawik gogorarazi zuen udal hauteskundeak egiteko eskubidea lehendik ere bazutela palestinarrek, harik eta israeldarrek debekatu zieten arte. Hauteskunde orokorrak egiteko proposamena aurreko elkarrizketetan



Hanan Ashrawi.

ere egin zuten palestinarrek baina Eliakim Rubinstein Israeleko ordezkari nagusiak, proposatu eta, berehala baztertu zuen palestinarren plangintza, «Estatu subiranoa osatzeko lehendabiziko urratsa» zela uste zuelako.